BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3565

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Irurako (Gipuzkoa) «Irura Ikastola» Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Haur Hezkuntzako 2. zikloko unitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Irurako (Gipuzkoa) «Irura Ikastola» izeneko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularraren ordezkariak ikastetxe horretako Haur Hezkuntzako 2. zikloan bi unitate gehitzeko baimena eskatzeko hasi duen espedientea aztertu da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE), Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE) eta gai horretan aplikatu behar diren indarreko gainerako legeak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio 2011-2012 ikasturtetik aurrera Haur Hezkuntzako 2. zikloko unitate bi gehitzeko:

Kode zenbakia: 20008431.

Izen espezifikoa: «Irura Ikastola».

Titularra: Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartea.

Helbidea: Zilar kalea 4 eta Mikel Goi-aingeru Enparantza 5.

Udalerria: Irura.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Haur Hezkuntzako 2. zikloko bi unitate gehitzea, ikasgelen azaleraren arabera eta ikaspostu bakoitzeko 2 metro koadroren baldintza aplikatuz, 20 eta 23 ikaspostutarako edukiera izango dutenak, hurrenez hurren.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloan: 2 unitate bi eta hiru urteko ikasleentzat, ikasgelen azaleraren arabera eta ikaspostu bakoitzeko 2 metro koadroren baldintza aplikatuz, 15 eta 16 ikaspostutarako edukiera izango dutenak, hurrenez hurren.

- Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 5 unitate, 118 ikaspostutarako edukierarekin.

- Lehen Hezkuntza: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukierarekin.

- Hezkuntza Berezia: unitate 1.

2. artikulua.- Agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari dagokienez, indarrean dauden legeak bete behar ditu ikastetxeak. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.- Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

Bigarrena.- Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hile biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.